**UDAL BATZARRAK 2018KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, 2018ko abenduaren 19an, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Nagore Zabala Arrieta eta Iñaki Rubio Torrientes Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga, Zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Idazkari lanetan Daniel Salazar Irusta jauna arituz.

**1.- 2018KO AZAROAREN 21EKO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2018ko azaroaren 21ean egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkatetzak jarraian zehaztutako dekretu bidez hartutako erabakien berri ematen zaio Udal Batzarrari:

- **Azaroaren 19ko 92/2018 dekretua.** Honen bidez, kredituak aldatzeko 2018-KALD-00010-00 zk. duen espedientea onartzea erabakitzen da.

- **Azaroaren 20ko 93/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Azaroaren 30eko 94/2018 dekretua.** Honen bidez, A.S.G.ren erreleboko lan-

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 19 DE DICIEMBRE DE 2018.-**

En la villa de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo 19:00 horas del día 19 de diciembre de 2018, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz, Dña. Nagore Zabala Arrieta y D. Iñaki Rubio Torrientes y los Sres. Concejales D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Javier Garmendia Ondarra, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretario, D. Daniel Salazar Irusta.

**1.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 21 DE NOVIEMBRE DE 2018.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 21 de noviembre de 2018, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-** Se da cuenta a la Corporación de los acuerdos adoptados mediante los siguientes Decretos de Alcaldía:

- **Decreto 92/2018, de 19 de noviembre,** por el que se acuerda aprobar el expediente de modificación de créditos identificado con el nº 2018-KALD-00010-00.

- **Decreto 93/2018, de 20 de noviembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Decreto 94/2018, de 30 de noviembre,** por el que se acuerda modificar el

kontratua aldatzea erabakitzen da.

contrato de relevo a A.S.G.

- **Abenduaren 3ko 95/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 95/2018, de 3 de diciembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abenduaren 10eko 96/2018 dekretua.** Honen bidez, Laboral Kutxa finantza-etxearekin 210.000 euroko mailegua kontratatzea erabakitzen da.

- **Decreto 96/2018, de 10 de diciembre,** por el que se acuerda contratar con la entidad financiera Laboral Kutxa un préstamo de 210.000 euros.

- **Abenduaren 11ko 97/2018 dekretua.** Honen bidez, 8/2018 eta 10/2018 baja datetan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

- **Decreto 97/2018, de 11 de diciembre,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en las datas de baja 8/2018 y 10/2018.

- **Abenduaren 11ko 98/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018/ 5, 6 eta 7 baja datetan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

- **Decreto 98/2018, de 11 de diciembre,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en las datas de baja 2018/5, 6 y 7.

**3.- <u>2019. URTERAKO AURREKONTUA.-</u> Alkateak** hitza hartzen du honako hau esateko: Gaurkoan, iritsi da legealdiko azken aurrekontu proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko momentua. Kontuan izanda azken aurrekontua dela eta hurrengo urtean udal hauteskundeak ditugula, 2019ko aurrekontua trantsizio aurrekontu bezala kalifikatuko genuke. Herriko beharrak, eskariak eta premiak zeintzuk diren aztertu ondoren, 2019ko aurrekontuak bide eman nahi die gabezia hauei.

**3.- <u>PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO DE 2019.-</u>** Toma la palabra el **Sr. Alcalde** y dice: Ha llegado el momento de debatir y someter a votación el último proyecto de presupuesto de la legislatura. Tratándose del último presupuesto y dado que el año próximo habrá elecciones municipales, el presupuesto de 2019 habría que calificarlo como un presupuesto de transición. Tras analizar las necesidades del municipio y las solicitudes habidas, ese presupuesto pretende dar solución a las mismas.

2019ko aurrekontuak (4.635.290 euro) aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuz, %9,37ko jaitsiera izan du, 2018koa 5.014.674 eurokoa izan baitzen. Jaitsiera honen arrazoia 2019rako aurreikusten diren inbertsioetan datza.

El presupuesto de 2019 (de 4.635.290 euros) ha sufrido una minoración del 9,37% respecto al presupuesto del año anterior que ascendía a 5.014.674 euros. La razón de esta bajada está en las inversiones previstas para el 2019.

2019an inbertsioetarako 347.290 euroko diru partida aurreikusi da, aurreko urtearekin alderatuz % 63,61eko jaitsiera izan duelarik (2018an 954.451,94 eurokoa izan zen). Iaz izan zen inbertsioetarako diru gehien aurreikusi zen urtea. 2019ko urtea

El año 2019 se ha previsto una partida de 347.290 euros para inversiones, lo que supone una rebaja del 63,61% respecto al año anterior (el año 2018 esta partida fue de 954.451,94 euros). El ejercicio anterior fue el año en el que se destinó mayor

trantsizio urtea izanda, ez dugu nahi izan hurrengo udal gobernu talde berriaren jarduera baldintzatzea. Inbertsioak burutzeko ez da mailegurik eskatu.

Inbertsioen zerrenda:

- Kiroldegiko igerilekuko deshumektadorea, 50.000 €.
- Kiroldegiaren anpliazioa gauzatzeko proiektua, zuzendaritza teknikoa, etb… 47.810 € + 12.000 € Kiroldegiko kultur gela berrietarako altzariak.
-
- Musika Eskolako leihoak, 30.000 €. Aurretik, 60.000 € galdara berria + argindarraren instalazio berria 20.000 €. Guztira eraikinean 110.000 euroko inbertsioa egin da 2 urtean.
-
- Sologoen Zentralean inbertsioak, 40.000 €.
- Haur Parkeak, 40.000 €.
- Zerbitzu Sozialen Mapa, 15.410 €.
- Baserri bideetako Inbertsioak, 30.000 €.
- Argiteria, 20.000 €.
- Nekazal lursailen erosketa, 9.000 €.
- Mendigaina balorean jartzea (dolmenen Ibilbidea), 7.000 €.
- Esperientziaren Gela, 5.000 €.

Nola finantziatzen dira? Baliabide propioekin 270.429 euro eta dirulaguntzekin 76.861 euro. 2019rako ez da mailegurik eskatu inbertsioak finantziatzeko.

**AZALPENA:** Nahiz eta inbertsio taulan ez azaldu, 2018tik pendiente ditugun 2 inbertsioren berri ematera natorkizue.
Kiroldegiko anpliazioaren proiektua 568.000 € eta Calonge kaleko atarietako (1 eta 2 zenbakikoak) irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio lanak. 2 proiektu hauek 2019. urtean burutuko ditugu nahiz eta ez aurreikusi 2019ko inbertsioetako taulan .

Alkatetzak aurkeztutako aurrekontuaren proiektuak, segidan bototara jarriko denak, ondorengo kapitulukako laburpena dauka:

cantidad para inversiones. Este año, siendo un año de transición, no hemos querido condicionar la actuación del nuevo equipo de gobierno. Por ello, no se ha solicitado préstamo para inversiones.

Relación de inversiones:

- Deshumectador para la piscina del polideportivo: 50.000 €.
- Proyecto, dirección técnica, etc… para la ampliación del polideportivo, 42.810 € + 12.000 € para mobiliario de las nuevas salas de cultura del polideportivo.
- Ventanas de la Musika Eskola, 30.000 €. Con anterioridad, 60.000 € de la caldera nueva + 20.000 € de la instalación eléctrica nueva. En total, se han invertido en este edificio 110.000 euros en 2 años.
- Inversiones en la central de Sologoen, 40.000 €.
- Parques infantiles, 40.000 €
- Mapa de Servicios Sociales, 156.410 €.
- Inversiones en caminos rurales, 30.000€.
- Iluminación, 20.000 €.
- Adquisición de terrenos rurales, 9.000 €.
- Puesta en valor del mendigain (ruta de los dólmenes), 7.000 €.
- Aula de la Experiencia, 5.000 €.

¿Cómo se financian? 270.429euros con recursos propios y 76.861 euros con subvenciones. Para el ejercicio 2019 no se ha solicitado ningún préstamo para financiar inversiones.

**ACLARACIÓN:** A pesar de no figurar en el cuadro de inversiones, he de informaros de 2 inversiones pendientes del año 2018.
El proyecto de ampliación de polideportivo 568.000 € y los trabajos de urbanización para la mejora de la accesibilidad a los portales 1 y 2 de Calonge. Ambos proyectos se llevarán cabo el año 2019 aunque no figuren en el cuadro de inversiones del 2019.

El proyecto del presupuesto presentado por la Alcaldía, que será sometido a votación seguidamente, contempla el siguiente resumen por capítulos:

| KAP.<br>CAP. | **SARREREN AURREKONTUA**<br>***PRESUPUESTO DE INGRESOS*** | **€** |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak – *Impuestos directos* | 833.542,00 |
| 2 | Zeharkako zergak – *Impuestos indirectos* | 40.000,00 |
| 3 | Tasa eta bestelako sarrerak – *Tasas y otros ingresos* | 693.450,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak – *Transferencias corrientes* | 2.966.025,00 |
| 5 | Ondare sarrerak – *Ingresos patrimoniales* | 14.107,00 |
| 6 | Inbertsio errealak inorenganatzea – *Enajenac. inversiones reales* | - |
| 7 | Kapital transferentziak – *Transferencias de capital* | 88.166,00 |
| 8 | Finantza aktiboak – *Activos financieros* | - |
| 9 | Finantza pasiboak – *Pasivos financieros* | - |
| | **SARRERAK GUZTIRA – *TOTAL INGRESOS*** | **4.635.290,00** |

| KAP.<br>CAP. | **GASTUEN AURREKONTUA**<br>***PRESUPUESTO DE GASTOS*** | **€** |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak – *Gastos del personal* | 1.401.820,00 |
| 2 | Gastuak ondasun arrunt eta zerb. – *Gastos bienes cor. y servic.* | 2.170.874,00 |
| 3 | Finantza gastuak – *Gastos financieros* | 13.700,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak – *Transferencias corrientes* | 439.023,00 |
| 6 | Inbertsio errealak – *Inversiones reales* | 347.290,00 |
| 7 | Kapital transferentziak – *Transferencias de capital* | - |
| 8 | Finantza aktiboak – *Activos financieros* | - |
| 9 | Finantza pasiboak – *Pasivos financieros* | 262.583,00 |
| | **GASTUAK GUZTIRA – *TOTAL GASTOS*** | **4.635.290,00** |

Bototara jarririk, gehiengoz erabakitzen da, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUKO Batzarkideei dagozkien kontrako bost botoz, 2019ko ekitaldiko aurrekontua **onartzea**.

Sometido a votación, se acuerda por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco votos en contra, correspondientes a los corporativos de EHBILDU, **aprobar** el presupuesto para el ejercicio de 2019.

Arratsaldeko 19:25 direnean, Ainhoa Unamuno Aranburu andreak alde egiten du saio aretotik.

Siendo las 19:25 horas, se ausenta de la sesión la concejala Ainhoa Unamuno Aranburu.

**Unai Larreategi:** Udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuen aurrean ondorengo irakurketa egiten dugu EHBildutik.

1.- Iaz bezala aurten ere EHBildurekin benetako negoziazio edota elkarrizketa gabe osatu dira aurrekontuak. Ekarpenak egiteko eskatu zitzaigun behin dana erabakita zegoenean eta logika horrekin ba ekarpenei ezezkoa eman zitzaien.

**Unai Larreategi:** Ante los presupuestos presentados por el equipo de gobierno, desde EHBildu hacemos la siguiente lectura:

1.- Al igual que en el ejercicio anterior, también este año se han elaborado los presupuestos sin negociar o dialogar con EHBildu. Tras tener todo decidido, se nos pidió que realizáramos aportaciones pero, lógicamente, rechazamos hacerlas.

2.- Aurrekontu hauetan legegintzaldi osoko tonikak aurrera jarraitzen du. Diru-sarrerak handitzen doazen arren (Gipuzkoako Ogasunaren diru-bilketa inoizko handiena delako) gastu arrunta gehiago ari da handitzen udal zerbitzuetan eta ondorioz udalaren aurrezpenerako gaitasuna txikitzen doa. Horrek zaildu egiten duelarik Soraluzen hain beharrezkoak diren inbertsioak egitea. Hemen 2014 eta 2019ko aurrekontu proposamenen konparaketa, (bertan ikusten da sarrera arruntak %14,5 igo arren aurrezki gaitasuna -%21 murriztu dela).

2.- Estos presupuestos siguen la misma línea de toda la legislatura. A pesar del incremento de ingresos (la recaudación de la Hacienda Foral es mayor que nunca), el gasto corriente de los servicios municipales está creciendo, por lo que disminuye la capacidad de ahorro del Ayuntamiento. Esto dificulta enormemente el poder realizar inversiones tan necesarias en Soraluze. He aquí un cuadro comparativo de los presupuestos de 2014 y 2019, en el que se evidencia que a pesar del incremento del 14,5% de los ingresos corrientes, la capacidad de ahorro disminuye el 21%.

| | **2014. urtea**<br>***Año 2014*** | **2019. urtea**<br>**Año 2019** | **Diferentzia**<br>***Diferencia*** |
|---|---|---|---|
| Sarrera arruntak<br>*Ingresos corrientes* | 3.979.114 € | 4.558.429 € | + 579.315 € (+%14,5) |
| Gastu arruntak<br>*Gastos corrientes* | 3.304.387 € | 4.025.417 € | + 721.030 € (+%21) |
| AURREZKI GAITASUNA<br>*Capacidad de ahorro* | 674.727 € | 533.012 € | - 141.715 € (-%21) |

Beraz diru-sarreren igoera osasun finantzieroa hobetzeko aprobetxatu beharrean guztiz kontrako norabidean egin da lan udal gobernutik. Krisi berri baten hotsak entzuten ari gara, ez dakigu zer etorriko den baina argi dagoena da berriz diru-sarrerak jaitsiko balirateke egoera delikatu baten aurrean aurkituko litzatekeela udala.

Por tanto, en vez de utilizar el incremento de los ingresos para mejorar la salud financiera, el gobierno municipal ha trabajado en sentido contrario. Se escuchan rumores acerca de una nueva crisis, no sabemos qué sucederá, pero está claro que, si disminuyeran los ingresos nuevamente, el Ayuntamiento se encontraría en una situación delicada.

3..- Aurrekontuak inbertsioetarako oso margen gutxirekin egin behar izan ditu udal gobernuak ondorioz. Eta hori horrela izanda anbizio gutxiko aurrekontu batzuen aurrean gaude.

3.- El equipo de gobierno ha elaborado unos presupuestos con muy poco margen para inversiones. Así pues, estamos ante unos presupuestos muy poco ambiciosos.

4.- Iaz esan genuen kiroldegi gainean pisu berri bat eraikitzeko 500.000€ inbertitzearekin zalantza handiak geneuzkala, diru horrekin premiazkoagoak ziren hamaika lan egiteko aukerak izango genituzkeelako. Oraindik obra hori ez da aktibatu, Diputazioak ahoz (ahoz diogu ez 2018 ezta ere 2019ko Diputazioaren aurrekontuetan ez delako horrelako diru-laguntzarik ageri) agindutako

4.- Ya dijimos el año pasado que teníamos muchas dudas sobre la inversión de 500.000 € en la construcción de una nueva planta en el polideportivo, ya que considerábamos que ese importe podíamos utilizarlo en infinidad de asuntos más urgentes. Todavía no se ha activado la citada obra, porque no hemos recibido la subvención de 250.000 euros prometida verbalmente por Diputación (decimos verbalmente, porque esa subvención no

250.000€tako diru-laguntza oraindik ez delako iritsi (urtarrilean iritsiko omen direla esan omen dute orain Diputaziotik). Obra hori gainera diru gehiago eskatzen ari da bere ejekuziorako, horrela 59.810€ gehiago ageri dira 2019ko aurrekontuetan obra horretara bideratuta.

5.- Soraluzeko langabezi-tasak Gipuzkoako handiena izaten jarraitzen du. Langabezian dagoen gehiengoa gainera oso maila formatibo gutxikoa izanik lan duin bat edukitzeko perspektiba egokirik ezin da aurreikusi. Horren aurrean udalak dinamika ahulegia eraman du legegintzaldi osoan zehar. Urtero bezala diru partida gehigarri bat proposatu dugu aurtengoan ere formazio plan baterako.

6.- Udaletxeko teilatuak daukan itxura ere ez zaigu onargarria iruditzen. Herritarrei eskatzen diegu ardurak hartzea herria txukun izateko baina horretarako gu geu izan beharko ginateke eredu. Aurten ere berriz jartzen dugu horren ejekuziorako partida eskaera.

7.- Berriz ere etxe hutsen errekargutik jasotako dirurik ez da ageri aurrekontuetan etxebizitza politiketarako. Berriz ere beste gauza batzuetan gastatuko da dirua. Hamaikagarren aldiz egoera berdina. Ematen diozuen garrantziaren seinale, ez dugulako uste guri adarra jotzearren edo lelotzat gaituzuelako egiten duzuenik gai honekikoa.

8.- Beste hainbat kontu ere egon behar lirateke gure iritziz aurrekontu hauetan. Autobus parada Gilan jartzea erabakiko balitz hori egin ahal izateko diru partida, herriko hainbat lekutan asfaltoak daukan egoera negargarria hobetzeko partida... eta beste hainbat kontu.

9.- Bukatzeko berriz esan behar dugu gehiegizkoa iruditzen zaigula Soraluzeko alkatearen soldata. Urtean 74.568€tako gastua suposatzen diolarik udalari.

figura en los presupuestos de Diputación de 2018, ni de 2019. Parece ser que, según Diputación, la recibiremos en enero). Además, esa obra está pidiendo más dinero para su ejecución. Así en los presupuestos de 2019 figuran 59.810 euros más, destinados a referida obra.

5.- La tasa de paro de Soraluze continúa siendo la más alta de Gipuzkoa. La mayoría de las personas que están en paro tienen un nivel formativo bajo, por lo que no se observan buenas perspectivas para la obtención de un trabajo digno. Ante esta situación, la dinámica llevada por el Ayuntamiento durante toda la legislatura ha sido floja. Como todos los años, hemos propuesto una partida complementaria destinada a un plan de formación.

6.- Tampoco nos parece admisible el estado del tejado del consistorio. Pedimos al vecindario que adopte responsabilidades para tener un pueblo limpio y nosotros deberíamos dar ejemplo. Este año también proponemos una partida para su ejecución.

7.- Una vez más, el dinero obtenido del recargo de las viviendas vacías no figura en los presupuestos para destinarlo a políticas de vivienda. Una vez más, se gastará en otras cosas. Vuelve a repetirse la misma situación. Señal de la importancia que le concedéis al tema, porque no creemos que lo hagáis para tomarnos el pelo o porque nos consideréis lelos.

8.- Consideramos que otras cuestiones también deberían figurar en los presupuestos: una partida para trasladar la parada de autobús a Gila si así se decidiera, una partida para mejorar el lamentable estado del asfaltado en distintas zonas del municipio… y así otros asuntos.

9.- Para terminar, hemos de decir que el sueldo del alcalde de Soraluze nos parece excesivo, el cual supone al Ayuntamiento un gasto anual de 74.568 euros.

Aldaketa proposamenak / *Modificaciones propuestas*

| | **Kendutako partidak** *Partidas restadas* | **Gehitutako partidak** *Partidas añadidas* |
|---|---|---|
| Alkatearen soldata murriztu / *Reducción sueldo del Alcalde* | 30.000 € | |
| Formazio plana langabetuentzat / *Plan de formación para desempleados/as* | | 19.810 € |
| Kiroldegiko instalazioak proiektuak eta zuzendaritza teknikoak / *Proyectos y dirección técnica de instalaciones del polideportivo* | 47.810 € | |
| Kiroldegiko kultur gela berrietarako altzariak / *Mobiliario para nuevas salas de cultura en el polideportivo* | 12.000 € | |
| Errabaletik erresidentziako igogailurarteko irisgarritasun hobekuntzak / *Mejoras de la accesibilidad desde Errabal hasta el ascensor a la Residencia* | | 50.000 € |
| Udaletxeko teilatua berriztu / *Reforma del tejado de la Casa Consistorial* | | 20.000 € |
| **GUZTIRA / *TOTAL*** | **89.810 €** | **89.810 €** |

**Beste kontu batzuk.**

Beste urtebete pasa da (eta legegintzaldia bukatzera doa) eta Irure Auzoko uren kanalizazioen obrak egin gabe jarraitzen dute. Diputazioko aurrekontuetan ez dirudi ere 2019an garatzeko asmorik dagoenik. Egunen baten argituko diguzue zergatik urtea joan eta urtea etorri ez dagoen nobedaderik?

**Iker Aldazabal:** Garbi dago EHBildurentzat lehentasunak beste batzuk direla. Gobernatzen zaudenean, herritarrekin harremanak eta jasotzen duzun informazioa bestelakoak dira. Oposizioari ez zaio informazio hori iristen. Azken hiru urteotan, herriko kirol- eta kultur-taldeen eskaerak etengabeak izan dira toki falta dela eta. Kiroldegia bete-beteta dago. Hortaz, proiektu honek erabateko lehentasuna du guretzat.

Oposizioan egon zineten aurreko legegintzaldietan, aurrekontuen aurka bozkatzeko erabili zenuten arrazoirik

**Otras cuestiones.**

Ha pasado un año más (y termina la legislatura) y continúan sin hacerse las obras de canalización de las aguas de Irure auzoa. Según los presupuestos de Diputación, no parece que dichas obras vayan a ejecutarse en el 2019. ¿Nos aclararéis algún día por qué año tras año continuamos sin novedades?

**Iker Aldazabal:** Está claro que para EH Bildu las prioridades son otras. Cuando se gobierna las relaciones con la ciudadanía y la información que te llega son diferentes. A la oposición esa información no llega. A lo largo de los tres últimos años las solicitudes de los diferentes grupos deportivos y culturales del municipio son incesantes en lo que a la falta de espacio se refiere, el polideportivo está saturado. Este proyecto es totalmente prioritario para nosotros.

Durante las anteriores legislaturas en las que estuvisteis en la oposición, la gran excusa para votar en contra de los

nagusiena honakoa izan zen: kultur-etxerako partidarik ez edukitzea. Gobernuan egon zinatenean, aldiz, ez zenuten kultur-etxerako proiekturik aurkeztu, ez eta horretarako gune berriak irekitzea ere. Dauden eskaerak eta premiak ikusita, proposamen berri hau egin dugu, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioa lortu dugularik.

Etxebizitza planari dagokionez, EHBilduri arrazoia eman behar diogu. Eta esan dezakegu, aurrekontuaren kitapenarekin eta diruzaintzako gerakina kontuan hartuta, gaiari buruz hitz egiteko eseriko garela.

Alkatearen soldata, legegintzaldian zehar behin eta berriz aipatzen duzuen gaia da eta 30.000 eurotan murriztea eskatzen duzue.

Aurten, ordea, EHBilduko bozeramailea batzar nagusietako EHBildu taldearen aholkularia ere bada eta kobratzen duen soldata altxor publikotik ateratzen da. Soldata hori zenbatekoa den jakin nahi genuke. Soldataren gaiarekin demagogia egiten da. Badirudi Alkateak ez duela ez erantzukizunik, ezta dedikaziorik ere.

**Unai Larreategi:** Kiroldegiko proiektua ahotan darabilgun azken urtean, ez dugu inolako azalpenik jaso antzemandako beharrei buruz, ez emango zaizkien irtenbideei buruz, ez eta -hala gertatuz gero- erantzunik gabe geratuko diren premiei buruz ere. Azalpenak hainbat alditan eskatu baditugu ere, ezer jakin gabe jarraitzen dugu.

**Iker Aldazabal:** Kirol batzordean proiektuaren berri eman da.

**Ramon Gallastegi**: Zehaztapenik eman ez bada ere, proiektuaren ikuspegi orokor bat eskaini da kirol batzordean.

**Iker Aldazabal:** Monografiko bat egingo

presupuestos era la falta de una partida para la casa de cultura. Cuando estuvisteis en el gobierno no se acometió el proyecto de la casa de cultura ni de la ampliación nuevos espacios al efecto. Ante la gran demanda y necesidad hacemos esta propuesta para lo cual se ha conseguido financiación de la Diputación Foral de Gipuazkoa.

En lo que respecta al plan de vivienda, no nos queda más que dar la razón a EHBildu y decir que con la liquidación del presupuesto y a la vista del remanente de tesorería nos sentaremos a hablar del tema.

En cuanto al sueldo del alcalde, es un tema ya recurrente en esta legislatura, solicitáis la reducción de 30.000 euros.

La novedad de este año es que el portavoz de EH Bildu es ahora asesor del grupo juntero de EHBildu y también cobra un sueldo del erario público, sueldo que nos gustaría conocer. Con este tema se viene haciendo demagogia. Parece ser que el alcalde no tiene responsabilidad ni dedicación en su trabajo.

**Unai Larreategi:** En este último año que se lleva hablando del proyecto del polideportivo no hemos recibido ninguna explicación de las necesidades que se aprecian, de las soluciones que se van a dar y de cuáles, en su caso, se van a dejar sin atender. Algo que hemos pedido en repetidas ocasiones y que se nos sigue sin dar.

**Iker Aldazabal:** En la comisión de deportes ya se ha dado cuenta del proyecto.

**Ramón Gallastegi:** No se ha detallado pero en la comisión de deporte se ha dado una visión general del proyecto.

**Iker Aldazabal:** Haremos un monográfico

dugu proiektua azaltzeko eta betebeharrak zeintzuk diren argitzeko.

para explicar el proyecto y las necesidades que va a cubrir.

**Patricia Borinaga:** Hezkuntza batzordean, ludoteka handitzea mintzagai izan genuenean, proiektu hau ere aipatu zen. Agian, ez zuzeneko gai bezala, bai albo-gai moduan. Zehatz-mehatz, pintura eskolarentzat beste kokapen bat aurkitzeaz hitz egin genuenean, honek okupatzen duen tokia ludoteka handitzeko irtenbide egoki bakarra irizten bait zitzaigun.

**Patricia Borinaga:** En la comisión de educación cuando se trató la ampliación de la Ludoteca se trató el tema, no con el matiz de respuesta a esa pregunta pero se trató, concretamente cuando se habló de buscar otra ubicación para la escuela de pintura, siendo el espacio que ocupaba ésta la única solución óptima para la ampliación de la ludotecas.

**Lorea de Castro:** Harritzen nau, momentu hartan ez baitzen kultur-guneei buruz ezer esan.

**Lorea de Castro:** Me sorprende ya que en aquel momento no se dijo nada sobre los espacios culturales.

**Unai Larreategi:** Soldataren gaiari buruz uste dugu Soraluzen, Gipuzkoako per capita errenta baxuenetarikoa duen udalerria izanda, Alkatearen soldata gehiegizkoa dela. Bakoitzak bere iritzia dauka eta hauxe da geurea.

**Unai Larreategi:** En cuanto al tema del sueldo creemos que Soraluze, siendo uno de los pueblos con la renta per cápita más baja de Gipuzkoa, el sueldo del alcalde es excesivo, cada uno tiene su opinión y esta es la nuestra.

Inguruko udalerriekin konparaketa sinple bat eginez gero, ikus dezakegu 10.000 biztanletik gora dituzten Zumaia eta Legazpiko Alkateek 55.000 eta 52.000 euro irabazten dituztela hurrenez-hurren; Errenteria eta Azpeitiako Alkateek Soraluzekoak baino 10.000 euro gutxiago eta Irun eta Eibarkoek 3.000 eta 6.000 euro eskas gehiago.

Haciendo una comparativa sencilla con pueblos del entorno, los alcaldes de Zumaia y Legazpi, municipios con más de 10.000 habitantes, sus alcaldes ganan 55.000 y 52.000 euros respectivamente, los alcaldes de Errenteria y Azpeitia 10.000 euros menos que el de Soraluze y los de Irun y Eibar, apenas 3.000 y 6.000 euros más.

Konparaketak garbi erakusten du hemengoaren soldata neurriz kanpokoa dela. Desoreka nabarmena dago eta horregatik gure proposamena. Soldata kontsonantzian balego, edota koherentea balitz, ez genuke ezer planteatuko, baina ez da horrela.

La comparativa deja claro que el sueldo está sobredimensionado. Hay un desequilibrio claro, por eso nuestra propuesta. Si el sueldo fuera en consonancia o coherencia no lo plantearíamos, pero no es así.

Nire soldatari dagokionez, nik 1.800 euro garbi kobratzen ditut. Eta soldata horren berri edonork izan dezake EHBilduren transparentzia politikari esker. Soldataren hortik gorakoa eman egiten dugu. Guztiok dakizuen lez, aholkularien soldata zehaztuta dago eta ezin dugu geuk jarri. Alkatearen soldata, ordea, plenoak

Con respecto a mi sueldo yo gano 1.800 euros netos, sueldo que cualquiera puede conocer por la política de transparencia de EH Bildu, el resto del sueldo se dona. Como todos sabéis, el sueldo de los asesores es el establecido no se puede elegir, cuestión diferente a la del sueldo del alcalde, el cual lo

erabakitzen du, kobratu nahi den kopurua norberak aukeratu dezakeelarik.

**Patricia Borinaga:** Nire ustez, Alkateen soldataren gaia kritikagarria litzateke soldata horrek beste partida batzuen edo izaera sozialeko jardueren murrizketa suposatuko balu. Baina horrela ez denez, ez dut uste zuen diskurtsoa urrun doanik.

**Lorea de Castro:** Aurreko legegintzaldian horixe bera entzutea nahiko genukeen.

**Patricia Borinaga:** Aurreko legegintzaldian aholkulariaren soldata kritikatzen genuen, Soraluzeko Udalean inoiz egon ez den aholkulariarena hain zuzen ere.

**Roke Akizu:** Galdera garbia da, zergatik kobratzen du kopuru hori?

**Xabier Garmendia:** Horrela erabaki dugulako eta gainerako guztia sobre dago. Gaiari bueltaka zabiltzate legealdiko lehendabiziko egunetik eta orduan ez zen konparaketarik egin. Gaia min emateko baino ez duzue ateratzen.

**Unai Larreategi:** Gaiz aldatuz, zera jakin nahi genuke: zergatik ez den inolako kopururik sartu aurrekontuetan Irureko obretarako.

**Iker Aldazabal:** Aldundiari dagokion obra delako.

**Unai Larreategi:** Konforme, baina uste dugu herriari eragiten dion arazoa izanik, lagundu eta babestu egin beharko genukeela.

**4.- <u>2019. URTERAKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO-ARAUA.-</u>** Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du, 2019. urterako Aurrekontuaren Exekuzio-Araua

establece el pleno pudiendo elegirse la cantidad a cobrar.

**Patricia Borinaga:** Entiendo que el sueldo del alcalde podría ser un tema criticable si su cobro supusiera el recorte en otra serie de partidas o acciones de corte social, pero no siendo el caso no creo que el discurso tenga recorrido alguno.

**Lorea de Castro:** Eso nos hubiese gustado oírlo la legislatura pasada.

**Patricia Borinaga:** La legislatura pasada criticábamos el sueldo del asesor, figura inédita hasta la fecha en el ayuntamiento de Soraluze.

**Roke Akizu:** La pregunta que hacemos es clara, ¿por qué cobra esa cantidad?.

**Xabier Garmendia:** Porque así lo hemos decidido y todo lo demás sobra. Estáis con el tema desde el primer día de la legislatura, y entonces no se hizo comparativa alguna, se saca el tema para hacer daño.

**Unai Larreategi:** Cambiando de tema, nos gustaría saber porqué no se incluye en los presupuestos cantidad alguna para las obras de Irure.

**Iker Aldazabal:** Es una obra que le compete a la Diputación.

**Unai Larreategi:** De acuerdo, pero creemos que es un problema que le afecta al municipio y que se debería de apoyar.

**4.- <u>NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA PARA EL AÑO 2019.-</u>** La Corporación Municipal acuerda por unanimidad, **aprobar** la Norma de

**onartzea**.

Ejecución Presupuestaria para el año 2019.

5.- **2019. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA.-** Udal Batzarrak aho batez **ERABAKITZEN DU:**

**Lehena:** Hasierako onespena ematea 2019. urterako plantilla organikoari.

**Bigarrena:** Espedientea jendaurrean jartzea hamabost laneguneko epez, erreklamazioak jaso ahal izateko.

**Hirugarrena:** Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betikotzat hartuko da. Erreklamazioak egonez gero, Plenoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

**Laugarrena:** Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ale bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.

5.- **PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL AÑO 2019.-** La Corporación Municipal, por unanimidad, **ACUERDA:**

**Primero:** Aprobar inicialmente la plantilla orgánica para el año 2019.

**Segundo:** Exponer el expediente al público durante quince días hábiles, a los efectos de reclamaciones.

**Tercero:** Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones. En caso contrario, el Pleno dispondrá del plazo de un mes para resolverlas.

**Cuarto:** Publicar el acuerdo definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y remitir copia a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6.- **SORALUZEKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA.-** Nagore Zabala zinegotziak Soraluzeko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plana aurkezten du. Honen helburua da euskara Udaleko lan-hizkuntza izatea eta herritarra berak aukeratutako hizkuntzan tratatzea eta hizkuntza horretan erantzutea. Berrikuntza modura aipatzen du, harrera-plan bat prestatuko dela langile berrientzat, harrera euskaraz egin dakien eta lana, gehienbat, euskaraz burutzea sustatu dadin.

Hizkuntza Politikaren Batzorde Informatzaileak proposatuta, Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du "Soraluzeko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. VI. Plangintzaldia 2018-2022" dagoen dagoenean onartzea.

6.- **PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKARA EN EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE.-** La Concejala **Nagore Zabala** presenta el VI Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento. Se pretende que el Euskera se convierta en el idioma de trabajo del Ayuntamiento y que al ciudadano se le conteste y se trate con él en el idioma de su elección. Como novedad se va a elaborar un plan de acogida a los nuevos/as trabajadores/as para que la misma se haga en euskera y se fomente el trabajo y la realización de éste en euskera, preferentemente.

A propuesta de la Comisión Informativa de Política Lingüística, la Corporación Municipal acuerda por unanimidad aprobar el "Plan de Normalización del Uso del Euskara en el Ayuntamiento de Soraluze. VI Período de Planificación 2018-2022", en los propios términos en que se encuentra redactado.

**7.- <u>SORALUZEKO UDAL MERKATU PLAZAN SALMENTA-POSTU FINKO BAT JARTZEKO ETA USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA AGIRIA.-</u>** Alkateak hitza hartzen eta jakinarazten du merkatu plazan arraindegi bat irekitzeko eskaera aurkeztu dela Udaletxean. Hortaz, akordio hau ezinbestekoa da araudiak ezartzen duen prozesuari hasiera emateko.

Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du, udalerri honetako udal merkatu plazan salmenta-postu finko bat jartzeko eta ustiatzeko administrazio-emakida arautuko duen baldintza agiria **onartzea**, horretarako prestatua izan dena.

**8.- <u>ESKARI ETA GALDERAK.-</u>** Ez zen ez eskaririk eta ez galderarik egin.

Eta beste gairik ezean eta hogei orduak eta hamabost minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

**7.- <u>PLIEGO DE PRESCRIPCIONES QUE HA DE REGIR LA ADJUDICACIÓN DE LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA PARA LA INSTALACIÓN Y EXPLOTACIÓN DE UN PUESTO FIJO EN LA PLAZA DEL MERCADO MUNICIPAL.-</u>** Toma la palabra el Sr, Alcalde y dice que se ha presentado una solicitud para abrir una pescadería en la plaza del mercado, por lo que a través del presente acuerdo se le da inicio al proceso establecido en la normativa.

La Corporación Municipal acuerda por unanimidad **aprobar** el pliego de prescripciones que ha de regir la concesión administrativa para la instalación y explotación de un puesto fijo en la plaza del mercado municipal de esta localidad, elaborado al efecto.

**8.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.-</u>** No se efectuó ningún ruego ni pregunta.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las veinte horas y quince minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretario, certifico.